

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2016ko MAIATZAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko maiatzaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Aritz Sarria Saraqueta


Bere ezin etorria azaltzen du: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2016ko apirilaren 7an egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 7 de abril de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2015 urteko kontu orokorraren onespena/Aprobación de la Cuenta General del Presupuesto 2015.**
- 4. Larraulgo Ostatu Zahar etxeko fatxadak eraberritzeko obra baimena eskaera, X.M./ Solicitud de licencia de obras de reforma de fachadas de la Casa Ostatu Zahar de Larrau, X.M.**
- 5. 2015 urteko jaietako gastuen kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la liquidación de fiestas ejercicio 2015.**
- 6. Larraulgo Beobide-buru baserriari loturik dauden terrenoetatik, Lete-Zabal, Azpiazu-aldea, Madalen baso, kurguil, Calvaiotako-arrubita eta Cillegui sailak banatzeko baimena eskaera, I.U./ Solicitud de licencia de segregación de las parcelas Lete-Zabal, Azpiazu-aldea, Madalen baso,**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- kurguil, Calvaiootako-arrubita y Cillegui de los pertenecidos del Caserío Beobide-buru de Larraul.
7. DINA 7 Elkarteak aurekezturiko 2015 urteko memoriaren onespena, hala bada./Aprobación de la memoria del ejercicio 2015 presentada por DINA 7 Elkarteak.
  8. 2016 urteari dagokion ura eta zabor tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de la solicitud de bonificación de las tasas de agua y basura para el ejercicio 2016.
  9. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
  10. Beste batzuk/Otros.
  11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
    - 11.1."Zurumurrurik ez/Red vasca antirumores-eri atxikimendua"

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2016 urteko apirilaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### BIGARREN PUNTUA

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

08/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 26koa, Larraulgo Agiñezabal baserrikoei, 2015eko 4. Hiruhilabeteko ur erreziboarengatik 25,06€itzultzea, ebazten duena.

09/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 28koa, L.A. andreaki Elizmendiko SANTA Kruz jaietarako buruhandi eta bost txilaba uzteko baimena ematea, ebazten duena.


10/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 28koa, 2016ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen eroldak onestea, ebazten duena.

11/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 26koa, Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuari esleitzea aurkezturiko 45/2016 aurrekontuan azaltzen diren lanak, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **2015 URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESPENA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2015 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork azertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2016ko apirilaren 13an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2016ko apirilaren 14tik 30era bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE:

LEHENENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritzat Larraulgo Udaleko 2015 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onspena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

### LAUGARREN PUNTUA

### **LARRAULGO OSTATU ZAHAR ETXEKO FATXADAK ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, X.M.**


Ikusirik X.M. jaunak, Ostatu-Zaharra 5 etxeke jabekideen izenean eginiko eskaera, non Larraulgo Ostatu Zahar etxeke fatxadak eraberritzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2016ko apirilaren 18an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO OSTATU ZAHAR ETXEKO FATXADAK ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

X.M.P. jaunak, Ostatu Zaharra 5 etxeke jabekideen ordezkari bezala, Ostatu Zaharra eraikinaren fatxadak eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu eta gaur eguneko egoera adierazten duten argazkiak aurkeztzen dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, eraikinean egin behar diren kanpo lanak fatxadaren konponketa eta margoketa izango da, teilatu hegala eta balkoi azpiak konpontzen direlarik ere. Etxearen albo batean euri urak bideratzeko kanal bat planteatzen da. Lan hauen aurrekontua, 21298,40€-koa da (BEZ-a gabe).



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Erabili behar duten kolorea gaur egungo kolorearen antzekoa da. Etxearen kanpo itxura eta bolumena ez da aldatzen.

Ostatu Zahar etxea, Larraulgo hiri lurzoruan kokatua dago, A.I.U.1 eremuan ain zuzen. Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.

Eraikinen estetika eta itxura markatzen duen araudia, "B" dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 3.2.4 puntuko 36º eta 37ª artikuluetan.

### Artículo 36.- Fachadas.

*La composición de las fachadas de los nuevos edificios será respetuosa con las de los edificios existentes en Larraul.*

*Podrá denegarse la licencia de edificación por motivos de orden estético cuando las fachadas resulten, de modo manifiesto, impropias del lugar de su emplazamiento.*

*En el caso de que existan tendereros en fachadas exteriores, estos se deberán cubrir con elementos que eviten la vista de la ropa tendida desde el exterior y cuyo diseño deberá integrarse en el conjunto de la fachada del edificio.*

*Los rótulos, anuncios luminosos o motivos ornamentales que se desarrollen sobre las fachadas tendrán un saliente máximo de 0,20 mts., y deberán estar situados a una altura mínima de 3 mts. Se colocarán en concordancia con la composición general de la fachada sin alterar ni deformar su configuración general. No podrán invadir los elementos permanentes de la fachada en planta baja ni situarse perpendicularmente a ella.*

### Artículo 37.- Materiales a emplear en los edificios.

*Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de las edificaciones existentes serán los tradicionales en el municipio:*

*- Fachadas: Se utilizará la piedra o el cerramiento de ladrillo o bloque raseado exteriormente y pintado. No se admitirá el ladrillo cara-vista o chapeos con materiales cerámicos, vítreos o mármoles en una proporción superior al 30% de la superficie total de fachada. Se podrá utilizar en algunos elementos de fachada los bloques de hormigón de aspecto pétreo siempre que en la composición de la fachada se respete el aspecto tradicional del medio rural.*


*- Carpintería: La carpintería exterior será de madera natural o pintada en tonos oscuros preferentemente. Se admitirá la utilización de carpinterías de otros materiales (PVC, carpintería metálica) pintada o lacada en colores apropiados.*

*- Antepechos, barandillas: Serán siempre calados tanto de madera como metálicos, nunca de fábrica. Tampoco se utilizarán otros materiales como plásticos en paneles, vidrio, etc.*

Beraz, fatxadak eraberritzeko lanak aurreko artikuluetara egokitzen direnez, udal baimena ematea egokia iruditzen zait.

\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean. "



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.M.jaunak, Ostatu Zaharra 5 etxeko jabekideen izenean eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Ostatu Zahar etxeko fatxadak eraberritzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**


### **2015 URTEKO JAIETAKO GASTUEN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik San Juan, San Esteban eta San Bartolome jaiak pasa direla, Cristian Pizarro zinegotziak jai hauetan egon diren gastuen berri ematen du. Jai guzti hauen kitapena ondorengoa izan delarik:

## **ORDAINKETAK 2015**

### **Kontzeptu ezberdinak**

Argi engantxeak	181,50
Iberdrola	436,42
Kartelak	260,00
Herri Ostatua	9,00
Eszenarioa Irura	150,00
Eszenarioa Irura garraioa	90,00
Eszenarioa	60,00
Eszenarioa garraioa	163,35
Elkarte gastu ezberdinak	00,00
Etxeferoak	41,52
Barrikotea	60,00
Maskuriak	21,12
Turutak	45,00
Aulkiak	123,60
	<b><u>1641,51</u></b>



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### San Joan Afarria

-Haragitegia	218,09
-Ogia	25,00
-Tomatea	31,40
-Krocketak	14,40
-Erosketak	45,26
-Postrea	120,00
-Piparrak	30,00
-Helatuak	25,03
-Elkartea	275,50
-Ostatua	7,40

**792,08**

### Kultur taldeak


-Lorrazak afarria	84,00
-DJ bull	250,00
-Apar festa	250,00
-Gorriti	500,00
-Laiotz	1400,00
-Izer eta Alabier	550,00
-Bertsolariak	800,00
-Lidia eta Xabier	300,00
-Pilotariak	400,00
-Ansozregi eta Larrañaga	500,00
-Laiotz afarria	150,00

**5184,00**

### Haur ekintzak

-Janaria	154,60
-Platerak,..	00,00
-Ogiak	20,00
-Helatuak	27,20
-Harategia	50,73
-Elkarte gastuak	47,30
-Goxokiak	64,00
-Altxorraren bila	11,20
-Guraso bazkaria (bakoitzak ordaindua, erosketak)	179,68
-Guraso bazkaria (bakoitzak ordaindua, elkarteak)	98,65

**653,36**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### Sagardo probaketa

-Ogia	30,00
-Sagardoa	86,50
-Txorizoa	154,82
-Basoak	29,04
-Elkartea	37,35

**337,71**

### Herri kirolak, idi-ahari

-Aizkorak	180,00
-Aizkorak zorrozteak	90,00
-Ahariak	100,00
-Egurra	120,00

**490,00**

### Opariak

-Trofeoak	175,73
-Ping pong afariak	50,60

**226,33**

### Batxuri zopa

-Bolak	4,17
-Sopako ogia	4,80
-Erosketak	7,13
-Elkartea	00,00

**16,10**


### Paella jana

-Kubiertoak eta platerak	21,81
-Kafe basoak eta azukrea	3,25
-Ogiak	30,00
-Haragitegia	73,14
-Erosketak	160,00
-Kafea	16,64
-Gazta	31,12
-Elkartea	38,90

**374,86**

### Hamaiketakoa

-Ogia San Esteban	47,35
-Berdurak eta Arrautzak San Esteban	25,00
-Haragia San Esteban	498,03
-Elkartea San Esteban	375,30
-Berdurak eta Arrautzak San Bartolome	25,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Haragia San Bartolome	397,75
-Elkartea San Bartolome	329,58
	<b><u>1698,01</u></b>
<b>Txosna</b>	
-Txosna	400,00
-Edaria	895,48
-Erosketak	14,50
	<b><u>1309,98</u></b>
<b>Salmentak</b>	
-Karretila boletuak	65,00
-Karretila	50,00
-Karretila produktuak	450,00
	<b><u>565,00</u></b>
<b>ORDAINKETAK GUZTIRA</b>	<b>13.024,94</b>

## JAIK 2015

### DIRU SARRERAK:

-Udalaren ekarpena	7000,00 euro
-Propaganda (laguntzaileak)	600,00 euro
-San Joan afaria, 34H,5G,25U	1135,00 euro
-Sagardo dastaketa	342,00 euro
-Errifak	1400,00 euro
-Mus Txapelketa	220,00 euro
-Txozna	1208,70 euro
-Guraso bazkaria	310,00 euro
-Paella bazkaria, 100H,17U	751,00 euro


**DIRU SARRERAK GUZTIRA: 12.966,70 euro**

**ORDAINKETAK GUZTIRA: 13.188,94 euro**

**BALANTZEA: -222,24 euro**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2015. urtean San Joan, San Esteban eta San Bartolome jaietan egindako gastuen likidazioa onestu, **13.188,94 euro**tako gastua izan delarik.

### SEIGARREN PUNTUA

**LARRAULGO BEOBIDE-BURU BASERRIARI LOTURIK DAUDEN TERRENOETATIK, LETE-ZABAL, AZPIAZU-ALDEA, KURGUIL, CARVAIOTAKO-ARRUBITA ETA CILLEGUI SAILAK BANATZEKO BAIMENA ESKAERA, I.U.**


Ikusirik I.U. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Beobide-buru baserriari loturik dauden terrenoetatik, Lete-Zabal, Azpiazu-aldea, Kurguil, Calvariotako-arrubita eta Cillegui terrenoak banatzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Larraulgo Beobide-buru baserriaren eta baserriari loturik dauden terrenoen deskribapena ondorengoa dela:

“La casería llamada BEOBIDE-BURU, número dos del barrio de Oriente de la Jurisdicción de LARRAUL. La casa consta de planta baja, un piso con habitaciones y desván; mide su solar dos áreas diez centiáreas y linda por Este, donde mira su fachada, Sur y Oeste, con sus propios pertenecidos y por Norte, con terreno de Beobide-garaikoa.

Son sus terrenos pertenecidos:


- a) En la inmediación de la casa y por los lados Este, Sur y Oeste con trozo de terreno que se halla bajo un perímetro de cabida de cincuenta y nueve áreas y cincuenta y ocho centiáreas, de las cuales tres áreas ochenta y cinco centiáreas son antepuertas; quince áreas nueve centiáreas de sembradio de Soro-chiki; veintitrés áreas noventa y siete centiáreas de manzanal de Echeatzea, y diez y seis áreas sesenta y siete centiáreas de herbal con varios árboles llamado Echeburua; confina por Oriente con camino carretil público, por Mediodía con pertenecidos de las casas de Beobide-garaikoa y Elizalde, por Poniente con los de la misma casa Elizalde y por Norte, con los de Beobide-azpikoa y Beobide-garaikoa.
- b) El terreno conocido con los nombres de Lete-zabal, Sagastizarra y Putzu-aldea, que comprende ciento setenta y dos áreas y diez centiáreas, de las que treinta y seis áreas cincuenta y tres centiáreas son de sembradio de Letezabal; treinta y cuatro áreas noventa y ocho centiáreas de herbales y peñascal; diez y siete áreas noventa centiáreas de sembradio de Sagastizarra; diez áreas noventa y siete centiáreas de ribazos; veinticinco áreas ochenta y tres centiáreas de manzanal; treinta y dos áreas veinticinco centiáreas de sembradio de Putzu-aldea; ocho áreas ochenta y ocho centiáreas de sembradio de Larraun-azpi, y cuatro áreas



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- setenta y seis centiáreas de ribazo; confina por Oriente con pertenecidos de las casas de Beobide-azpikoa, Beobide-garaikoa y Elizalde, por Mediodia con camino carretil público, por Poniente con pertenecidos de la casa Iquilisagasti y por Norte con camino carretil público.
- c) El terreno castañar llamado Ondarraga de cabida de sesenta y nueve áreas y veinticuatro centiáreas, confinante por Oriente con pertenecidos de las casas de Beobide-garaikoa y Beobide-azpikoa, por Mediodia con el de Bobide-azpikoa, por Poniente con la regata llamada Ondarraga-erreka y por Norte, con pertenecidos de las casa de Maisujaunenea y Iribar-garaikoa.
  - d) El terreno castañar nombrado Arratondoko-Luberri-aldea de ocho áreas cincuenta y un centiáreas, lindante por Oriente y Mediodia con pertenecidos de la casa Reiau, por Poniente con terreno de Don José Domingo Iraola y por Norte con camino carretil.
  - e) El castañar llamado Azpiazu-aldea que mide veintidós áreas cincuenta y nueve centiáreas, confinante por Oriente con pertenecidos de la casa Beobide-garaikoa y por todos los demás lados con el de la casa Azpiazu.
  - f) El castañar llamado Madalen-baso que mide con descuento de los caminos que le atraviesan cuarenta y tres áreas setenta y tres centiáreas, confina por Oriente con pertenecidos de las casa de Reizu e Igaronea, por Mediodia con el de Beobide-azpikoa, por Poniente con los de Reizu y Beobide-garaikoa y por Norte con el de la casa Peñanea.
  - g) El terreno helechal y hayal del término de Kurguil que comprende setenta y seis áreas y noventa y dos centiáreas de helechal y veintitrés áreas y nueve centiáreas de hayal, confinante por Oriente con pertenecidos de la casa Beobide-garaikoa, por Mediodia con el de la casa Arizabal, por Poniente con el de Goieneta-bitartea y por Norte con el de la casa Aguirrezavala y comaino carretil.
  - h) El terreno castañar y erial del punto de Biturraín que contiene catorce áreas y cuarenta y dos centiáreas de castañar y una área y noventa y dos centiáreas de erial; confinan por Oriente con pertenecidos de las casas de Lamitegui, Zubiaurre y Beobide-garaikoa, por Mediodia con el de Larmittegui, por Poniente con el de Beobide-garaikoa y por Norte con la regatilla llamado Biturraín.
  - i) En el punto llamado Calvaiotako-arribita un trozo de terreno hayal que con descuento de los caminos mide ciento sesenta y tres áreas y ochenta y siete centiáreas, confinante por Oriente con pertenecidos de las casa Concejil de Larraul y Zabaleta, por Mediodia con los de Iquilisagasti y Oñazabal, por Poniente con los de Iquilisagasti, Beobide-azpikoa y Eleizagui y por Norte, con los de las casas Churingadi y Posada de Larraul.
  - j) Un trozo de terreno robledal llamado Cillegui que mide treinta y tres áreas y sesenta y un centiáreas, confinante por Oriente y Norte con pertenecidos de la casa Arezabal, por Mediodia con el de Larramendi y por Poniente con el de Elizalde.
  - k) Y otro trozo de terreno conocido con el nombre de Oguei-eche-sallak, poblado de árboles, que mide cuatro áreas treinta y seis centiáreas confinante por Oriente



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

con camino carritel, por Mediodia con pertenecidos de la casa Aguirre-zarra, por Poniente con el de Arpide-cejeberry y por Norte, con el de Olotzaya y camino.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** I.U. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Beobide-buru baserriari loturik dauden terrenoetatik, Lete-Zabal, Azpiazu-aldea, Kurguil, Calvariotako-arrubita eta Cillegui terrenoak banatzeko edo segregatzeko baimena ematea.

**BIGARRENA:** Larraulgo Beobide-buru baserriari loturik geldituko diren terrenoak ondorengoak izango dira: Echeburua, Ondarraga, Arratondoko-luberry-aldea, Madalen-baso, Biturraín eta Oguei-eche-sallak. Terreno hauek Beobide buru baserriari loturik geldituko dira, itsatsi eta zatiezin modura. Guztira, 20.176 m<sup>2</sup> izanik.

**HIRUGARRENA:** Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri I.U. jaunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **DINA 7 ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2015 URTEKO MEMORIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak aurkezturiko 2015 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2015 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria onestea.

**BIGARRENA:** Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **2016 URTEARI DAGOKION URA ETA ZABOR TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2016 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko 2016ko otsailaren 1etik 29 arte epea ireki zela, eskaera bakarra egon delarik.

Ikusirik 2016ko apirilaren 29an Larraulgo Udaletxeko Gizarte langileak eginiko txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: M.C.G.H. andreak eskaturiko 2016 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaera ukatzea, Larraulgo Udaleko gizarte langileak eginiko txostenean jasotzen diren arrazoiak medio direla.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

FERRETERIA BARBE	146,34
AITZOL	64,96
LIDOINSA	883,30
EZENARRO	2.586,98
TOLOMENDI	152,50
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	165,21
TOLOMENDI	1.777,87
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	62,08
ULAHI	363,00
ALKORA	444,63
BABESA SUZAI	271,51
CORREOS	8,85
IBERDROLA	62,11
IBERDROLA	133,40
IBERDROLA	173,07
IBERDROLA	205,65
IBERDROLA	29,91
IBERDROLA	232,40
IBERDROLA	96,95
MOVISTAR	18,33
MOVISTAR	49,55
MOVISTAR	18,33
MOVISTAR	48,76



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	18,81
MOVISTAR	54,26
MOVISTAR	134,17

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **8.202,93** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **10.1. DINA7 KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2016 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak prest dagoela 2016 urtean ere Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketarekin jarraitzea.

Ikusirik DINA 7 Elkarteak eginiko 2016 urterako diru-laguntza eskaera, euren jarduera aurrera eramateko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Larraulgo Udalak onespena ematea, DINA 7 Kultur Elkarteak 2016 urtean Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketa eraman dezan, horretarako dagokion hitzarmena sinatuko delarik. Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakaria ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

BIGARRENA: DINA 7 Elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza ematea, euren jarduera aurrera eramateko.

HIRUGARRENA: 500,00 eurotako gastua onestea, 2016 urteko aurrekontuetako 422.120.00.01 partidaren kargura.

LAUGARRENGOA: DINA 7 Elkarteak sortzen duen produktu kultural bakoitzetik 3 ale emango dizkio Larraulgo Udalari.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

## **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

### **11.1. Zurrumurrurik EZ / Red vasca antiRUMORES-i ATXIKIMENDUA**

Ondoren Zurrumurrurik EZ/Red vasca antiRUMORES idatzia aurkezten da non ondorengo dioen:

#### **“Zurrumurrurik EZ / Red vasca antiRUMORES**

Euskal Herriko hainbat gizarte eta erakunde-ekimenek jarduerak eta programak garatzen jardun dugu 2011.urtetik **Zurrumurrurik EZ / antiRUMORES** deritzon sentsibilizazio sozialerako estrategiaren barruan.


Zurrumurrurik EZ terminoak, Bartzelonako Udalak 2010ean sorturiko marka, BCN anti- RUMORS, du oinarri eta haren finkapen eta hedapen-prozesuan garaturiko metodologietan (estatuko eta Europako lurralde askotara zabaldu direnetan) oinarritzen da.

Gizarte-eraldaketarako estrategia da, giza eskubideen eta kulturartekotasunaren aldeko eta arrazismoaren kontrako ikuspegitik. Etorकिन eta kulturaaniztasunaren inguruko oinarri gabeko zurrumurrurak, estereotipo negatiboak eta aurreiritziak izatea eta zabaltzea oztopo dira pertsonen arteko harremanetarako, intolerantziaren aldeko diskurtsoa elikatzen dute eta, gerora, berdintasunik eza, gizartezatiketa eta diskriminaziorako haztegi bilakatzen dira. Beharrezkoa da pertsonen eta taldeen ideia, ulertzeko modu, estereotipo eta kontzeptuetan eragitea geure gizarte, norbanako eta talde mailako jardunbideetan jarrera-aldaketa eragiteko.

Estrategia honen ezaugarri dira erakunde publikoen, gizarte-erakundeen eta modu pertsonalean parte hartzen duten pertsonen bultzada komuna eta politika publikoen eta herri-mugimenduen ekintzen osagaiak uztartzea.

Zurrumurrurik EZ estrategiak lotura estua dauka genero-ikuspegia, gizarte-inklusio, funtzioaniztasun, erlijio-aniztasun, sexu-orientazio, belaunaldien arteko orientazioarekin eta abarrekin. Izan ere, horietan guztietan dauden estereotipo negatiboek, aurreiritziek eta zurrumurrur faltsuek ondorio negatiboak eragiten dituzte kohesio sozialari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean *Aurre egin zurrumurruari* ekimena abian jarri zuenetik, lantaldea modu jarraituan eta aldian-aldian mantendu da, eta, horri esker, lurraldean eginiko zurrumurruren aurkako ekimen asko elkarrekin lotu ahal izan dira. Horrez gain, estatuko eta nazioarteko antzeko ekimenen arteko loturak eta lan-eremuak ezarri dira, laguntza handia izan dutenak, hala nola, Europako Kontseiluarena eta Integraziorako Europako Funtzarenaren Horriek horrela, \* Sinestuta beharrezkoa dela elkarlanerako gune hau sendotzea sinergiak sortzeko, \* Ustetan garaia dela euskal estrategia desberdinak



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

bateratuko dituen izendapen komun bat sortzeko, \* Partehartzaile bakoitzaren autonomia eta erabiltzen dituen lan metodologia eta tresnak errespetatuz Gizarte erakunde eta instituzio publiko sinatzaileek erabaki dute **Zurumurrurik EZ / Red Vasca Antirrumores sarea** eratzea, hurrengo helburuekin:

1. Zurumurruen aurkako estrategian, praktika egokien jakintza eta azterketarako gunea izatea, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako prebentzio eta lanarekin batera.
2. Elkarlanean edo koordinaturik lan esperientziak garatu, arreta berrezia jarrita formakuntza prozesuen diseinuari, ezagutzarako dokumentazio eta materialen sorkuntzari, eta zurumurruen aurkako ekintzen katalogo bat garatzeari, zein sareko kideen artean partekatu ahal izango den eta interesgarritzat jo dezaketen erakunde eta instituzioei eskainiko zaien.
3. Kanal bat sustatu, Euskadin sorturiko zurumurruen aurkako esperientzien berri emateko eta haien gizarte eragina biderkatzeko.
4. Gizarte eta instituzio eragile berriak sarera gehitu eta haiekin esperientziak eta helburuak partekatu.

Lankidetzarako gune formalki antolaturiko baten beharra adosteaz gain, eta arearen hirugarren helburuarekin bat, web orri bat martxan jarri domeinuekin.

Ondoren aipatzen diren erakunde eta instituzioek agiri hau sinatzen dute **Zurumurrurik EZ / Red vasca Antirrumores** sarearen sortze gutun gisa eta bertan aipatu helburuen alde.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Zurumurrurik EZ/RED VASCA Antirrumores idatziari atxikimendua ematea onesten da.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA